


zubi guztien gainera

Mugarik ez! · Transnazionalik ez!



Nola egingo dugu prozesua herrietan eta taldeetan?

Prozesu honek bi zati ditu: batetik, **txostenari buruzko eztabaida**, eta, bestetik, **ekintza sinbolikoa**. Zenbait baliabide izango ditugu erabilgarri prozesua modu autonomoan aurrera eramateko.

Martxak honako material hauek emango ditu:

- **Txostena**. Lan-tresna pedagogiko gisa diseinatu da, atal bakoitzaren bukaeran galderak proposatuta. Galdera horiek aukera ematen dute gai bakoitzaren inguruan hausnarketa egiteko.
- 2020ko Martxa aurkezteko **bideoa**.
- **Formakuntza-saio telematikoak** doan abendutik otsailera:
 - Urtarrilaren 13an, 18:30ean: Migrazio-politikak eta mugak
 - Otsailaren 3an, 18:30ean: Transnazionalak
 - Otsailaren 17an, 18:30ean: Arrazakeria eta feminismoa

Ikusi materiala [HEMEN](#) klikatuta edo www.emakumeenmundumartxa.eus webgunean sartuta

Zein izango da V. ekintzaren ildo nagusia?

Martxaren filosofiaren bidetik, sortutako dinamika herriz herri eramango dugu martxoaren 6an Irun-Hendaiako mugara iristeko, ikur komun batekin. Ikur gisa **zubiak eta zapiak** erabiltzea erabaki dugu.

Zubiek ez dute esanahi bera pertsona migratzaile guztientzat; izan ere, inoiz jendea konektatzeko baliagarriak izan ziren zubiak **harresi** bilakatu dira, eta ez dute pertsonen joan-etorria ahalbidetzen; gune horietan pertsonak diskriminatu, zapaldu, baztertu eta hil ere egiten dituzte.

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxaren feminismotik, arrakalak sortu behar ditugu **zubi-harresietan**, ekintza honetan kapitalismoaren, kolonialismoaren, arrazakeriaren eta heteropatriarkatuaren adierazle baitira. Horretarako, **zapiak** erabiltzea proposatzen dizuegu, taldearen eta norbanakoaren konpromisoa oinarri hartuta, **zubi-harresietan** arrakalak sortuko dituen ekintza bat idatz dezazuen.

Nola erabiliko ditugu zapiak?

Txostena taldean landu eta eztabaidatu ondoren, ekintzak diseinatuko ditugu. Herriko zubi bat aukeratuko dugu, zapiekin osatuko dugun sarea bertan zintzilikatzeko. Zubia beharrea beste lekuren bat aukera daiteke, ez dago arazorik. **Erabateko autonomia izango dugu prozesu osoan zehar ekintzak egiteko! Zubi-harresiak** modu kolektiboan eta indibidualean eraisteko, deseraikitze eta esanahi berri batez janzteko gure ekarpenak ezagutzera emateko orduan, izan gaitezen sortzaileak!

Gure ekintzak argazkien edo bideoen bidez jasoko ditugu. Hala, kronika bat osatu ahal izango dugu, herrietan egiten ari garen lana gure sare sozialetan erakusteko. Partekatu sareetan etiketa jarrita (@euskalherrikoemakumeenmartxa, @...) eta #ZubiGuztienGainetik #MugarikEz #TransnazionalikEz #VEkintza #VAcción #VAAction... traolak erabilita.

Zapi txikiak eta zapi handiak

Herrietan zapien tamainarekin jolastu dezakegu eta nahi beste nahastu alternatiba sare hori ehuntze aldera. Halabaina, Irun-Hendaiara eraman beharreko zapia handia izan beharko da herri eta kolektibo guztion aldarrikapena(k) irakur daitezen: 2'5 m x 1'5 m-ko laukizuzena.

Zapien bilketa: otsailaren 20tik 27ra

Garrantzitsua da martxoaren 6rako zapi guztiak edukitzea. Horregatik, horiek jasotzera joango gara, itxieran gure ekintza kolektiboaren osagarri izan daitezen. **Gure zapi handiak herriz herri, zapiz zapi lotzen joatea** proposatzen dugu. Egundoko ibilaldia egingo dugu Euskal Herrian zehar... Bat egingo duzu V. ekintzarekin?

Antolatzen joateko, **garrantzitsua da inprimaki hau betetzea.**

Martxoaren 6an, V. ekintzaren itxiera

Irun eta Hendaia arteko mugan itxiko dugu gure V. ekintza. Arrakala sinbolikoa osatzeko **prozesuan zehar herrietan eta taldeetan egin diren zapi guztiak lotuko ditugu.**

Egungo egoera dela eta, oraindik ez dakigu guztiok bertan egon ahal izango garen. Horregatik, bi aukera izango ditugu, bata aurrez aurrekoa eta bestea birtuala. Eraiki dezagun itxiera elkarrekin! Lantaldean parte hartzeko, idatzi helbide elektroniko honetara: emakumemartxa@gmail.com

Azkenik, herrietako prozesua zertarako den eta zertarako EZ den

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxako feministok, arrazakeriak pertsona migratzaileen bizitzan duen eragina gutxitzeko ekintzak egiteko ardura eta konpromisoa onartu ditugu. Mugimendu feministaren ibilbidean zehar horixe bera egin dugu hainbat arlotatik zeharka datozkigun indarkeria matxisten aurrean; orain arrazakeriaren aurka ere egingo dugu.

Zertarako da prozesua?

- Arrazakeria ikusarazi eta salatzeke, egiturazko zapalkuntza sistema delako.
- Modu antolatuan lanean ari diren emakume migratzaileen aktibismoa goraipatzeko. Laga haiei dagozkien espazioak! Entzun haien errebindikazioak! Zabaldu haien salaketak! Gonbida itzazu zure ekintzetara! Ezagutu itzazu!
- Pertsona migratzaileak entzuteko, haiek isilarazi eta biktimizatu gabe.

Zertarako EZ da prozesua?

- Utilitarismoarako: ez duzu emakume migratzaile eta arrazializatu bat erabili beharrik zure feminismoa askotarikoa eta interseksionala dela erakusteko.
- Antolatuta dauden pertsona migratzaileen ahotsen eta diskurtsoen jabe egiteko. Pertsona migratzaileen tutoretzan aritzeko.
- Ez dugu nahi inork jardutea errukiak, karitateak edo errudun-sentimenduek bultzatuta.
- Kontua ez da zure militantzian beste txapa bat gehiago itsastea, edo feminismo dekolonialaren titulua eskuratzea, zeure pentsaera deseraiki eta zure feminismoan kolonialismoaren aurkako jardunbideak txertatzea baizik.

Harremanetarako:

emakumemartxa@gmail.com

EUSKAL HERRIKO
EMAKUMEON MUNDU MARTXA

